

ZORIGAITOKO OIHARTZUNA

Betiko ibilbidea, betiko ezinegona, betiko ezintasuna.

Etxerako bidean, mobila esku artean indarrez eutsita, pauso azkarrez, betiko tabernan agurtutako lagunaren mezua jaso dut: *Aitzi, abixau etxera heltzerakuan*. Berrero, aurreko zapatuan, eta aurrekoan eta aurrekoan baita ere sentitutako zurrumbiloa baitan hartu nau, betiko bidean.

Etxera heldu baino lehen eskubiko eskua jada poltsa barruan sartu dut, portalera heldu bezain pronto eskura izateko giltzen bila nago.

Auzoan, betiko jendea dabil, eta niri betiko etxerako bidea egiterakoan sentitzen dudana ondoeza narabil.

Etxeko giltzak eskuratzean txistukada bat entzun dut, *berrero betiko txistukada ez, joder* pentsatu dut. Atzera begiratu bez.

Egia esanda, ez litzateke lehenengo aldia izango artzain txakurtzat hartzen nautela, eta egungo panorama ikusita, badirudi azkena ere ez dela izango.

Oraingoan amorruek baitan hartu nau, betikoa, halako egoera baten aurrean nere burua ikusterakoan sentitzen dudana.

Zergatik betiko ibilbidean, betiko ezinegona, betiko ondoeza, betiko ezintasuna eta betiko amorruek? Aski da.

Badakit, duela urteak auzi honek, bidegabekeriak, ez zuen gaur egun duen horrenbesteko oihartzunik. Bitziza kentzen digun bidegabekeria, alegia.

Bitziza kentzen jarraituko diguna? Zorigaitzoko oihartzuna.